

IRABAZI ITURRIAK

Edukiko ditugun irabazi-iturriak, hiritarrek gure zerbitzua kontratatzen dute eñean lortzen joango gara. Diru sarrera horiek finakoak izango dira, izan ere, merkatuaren egoera aldatu arren gure zerbitzuaren prezioak berdin jarraituko du, aldagai finako edo estatiko batzuek definituta egongo da.

Irabazi iturri garrantzitsuenak Donostiako eta inguruko herrietako dendei publizitatea eginez lortuko ditugu, baita gure bezeroen harpidetzen bitartez.

Hauek dira gure bezeroek izango dituzten harpidetza aukerak:

BEZEROEN HARPIDETZA AUKERAK		
	Hilabetean	Urtean
Banaka	2,99€	3,99x12= 47,88€
Bikotea	4,99€	5,99x12= 71,88€
Familiarra (5 pertsona gehienez)	9,99€	10,99x12= 131,88€
BATEZ-BESTE (pertsona bakoitzak ordainduko duena)	2,5€	2,5x12=30€

$$2,99 + (4,99/2) + (9,99/5) = 7,483$$

$$7,483/3 = 2,4933$$

Denden publizitatearekin lortzen ditugun diru-sarrerak finakoak izango dira, izan ere, prezioa beti berdina izango da. Aterkietan publizitatea urte batez egingo da, eta web-gunean eta aplikazioan hilabete bateko epean.

Dendek ordaindu beharrekoa publizitatea egitearen truke			
	Aterkia (5eko sorta)	Web-gunea	Aplikazioa
Prezioa	160€ (urtean)	15€ (hilabetean)	15€ (hilabetean)



Proiektuak hasieran aurrera jarraitu ahal izateko diru sarrera batzuk beharko ditugu, izan ere, ulertzekoa da proiektuaren hastapenean irabaziak ez izatea behar bezain altuak. Horretarako taldekide bakoitzak 10.000€ jartzea erabaki dugu, eta horrekin batera bankuari 1.000.000€ko mailegu bat eskatuko diogu.

Hauek dira gure diru sarreraren aurreikuspenak:

DIRU SARRERAK			
		Hilabetean	Urtean
Publizitatea	Web-gunean	15x20=300€	300x12=3.600€
	Aplikazioan	15x20=300€	300x12=3.600€
	Aterkietan		1.120.000€
Bezeroen harpidetza (Batez beste)		2,5x25.000=62.500€	62.500x12=750.000€
GUZTIRA		63.100€	1.877.200€

Beraz, diru sarrerak kostuekin alderatuz, gure enpresa bideragarria dela esan dezakegu; izan ere, lehenengo urtean 1.904.600,83€-ko kostuak izango ditugu, eta diru sarrerak 1.877.200€koak izango diren arren, bigarren urteko kostuak 895.447,28€koa delarik, diru sarrerak baino baxuagoak izango dira, eta lehenengo urtean sortutako zuloa estaltzen joango gara.

